

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

280/2019 Foru Agindua, ekainaren 5ekoa, onesten duena otsailaren 18ko 95/2019 Foru Aginduaren bidez egindako zerga ikuskatzaile laguntzaileen deialdian onartu eta baztertu direnen behin betiko zerrendak, zeina ALHAOren 2019ko otsailaren 27ko 25. zenbakian argitaratu zen eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2018ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion

Otsailaren 15eko 82/2019 Foru Agindua, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautapoben oinarri orokorrak onartzen dituenak, 7.2 oinarrian xedatutakoaren arabera, epea amaitzen denean onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenden aurka erreklamazioak aurkezteko, eta ebazten direnean aurkezten direnak, Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak foru agindu bat emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuz, behin-behineko zerrendetan jasotako datu berberen xehetasunekin eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoiarekin.

Halaber, 82/2019 Foru Aginduaren 8.1 oinarriak ezartzen du Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez izendatuko direla hautaprobak kalifikatuko dituzten epaimahaietako kideak, eta hori ere ALHAOn argitaratuko dela.

Azkenik, eta aipatutako foru aginduaren 10.2.2 oinarrian xedatutakoaren arabera, ALHAOn argitaratuko da lehen ariketa edo ariketa bakarra (deialdiaren arabera) egiteko lekua, eguna eta ordua ere.

Datu pertsonalen publikotasun eta babes printzipioen nahitaezko haztapenaren arabera, onartuen behin betiko zerrenda argitaratuko da haien eskubideak bermatzeko interesdun guztien esku egonik, zuzenbidean nahitaezko baino ez den publikotasuna ez edukitzeko moduan, bermatuta horrela zerrendon eraginkortasuna eta eskubide guztien babesa. Horrela jasotzen da martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 20. artikuluan, non xedatzen baita onartuen eta baztertuen zerrendak onesten dituen ebazpenean adieraziko dela non jarri diren jendaurrean zerrenda horiek.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea otsailaren 18ko 95/2019 Foru Aginduaren bidez egindako zerga ikuskatzaile laguntzaileen deialdian onartu eta baztertu direnen behin betiko zerrendak, zeina ALHAOren 2019ko otsailaren 27ko 25. zenbakian argitaratu zen eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2018ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion.

Bigarrenena. Agintzea zerga ikuskatzaile laguntzaileen deialdian onartu eta baztertu direnen behin betiko zerrendak argitara daitezzen Arabako Foru Aldundiaren enplegu atarian: www.araba.eus/PortalEmpleo.

Hirugarrena. Izendatzea zerga ikuskatzaile laguntzaileen deialdiko hautaprobak kalifikatu behar dituen epaimahaiko kideak. Foru agindu honen eranskinean jasotzen dira.

Laugarrena. Iragartzea karrerako funtzionario gisa sartzeko txanda irekiko eta barne sustapeneko lehen ariketa, zerga ikuskatzaile laguntzaileen deialdian, A taldeko A1 titulazio azpitaldekoak eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2018ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokiona. Hauexek lekua eta eguna:

2019ko uztailaren 12an, 16:00etan.

Olarizu aretoa

Europa Biltzar Jauregia

Gasteiz hiribidea 85

Gasteiz (Araba)

Bosgarrena. Izangaiek probara ekarri behar dituzte NANA, pasaporte eta gidabaimena, edo agiri baliokidea atzerritarren kasuan, eta bolaluma.

Seigarrena. Probetara aurkeztu ahal izango dira onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzen duen foru aginduan onartutzat agertzen diren izangaiak, bai eta, baztertu gisa azaldu arren, proba horiek egiteko unean egiaztatzen dutenak dagokien errekurtsioa aurkeztu dutela eta hori ez dela oraindik ebatzi; kasu horretan, probek ez dute baliorik izango errekurtsio horiek ezesten badira.

Zazpigarrena. Agintzea foru agindu hau argitara dadin ALHAOn eta Arabako Foru Aldundiaren enplegu atarian: www.araba.eus/PortalEmpleo.

Zortzigarrena. Foru Agindu honen aurka, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, ebazpena eman zuen organo beraren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 5a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

I. ERANSKINA

ZERGA IKUSKATZAILE LAGUNTZAILEEN EPAIMAHAIA

EPAIMAHAIBURUA

Titularra: Gonzalo López Huerta Martínez de Aragón

Ordezkoa: Pedro Izaguirre Andrés

EPAIMAHAIKIDEAK

Titularra: Olatz Ereño García

Ordezkoa: M^a José Perea García

Titularra: Fernando Martínez de Zuazo Letamendi

Ordezkoa: Yolanda Villanueva Villarreal

Titularra: Félix Díaz Amundarain

Ordezkoa: Agustín Vicente Vicente

IDAZKARIA

Titularra: Cristina Navas Iburguren

Ordezkoa: Nagore García Velázquez